

Errusia eta Ukraina Andre Mariaren eskuetan (2022-02-25)

Frantzisko aita santuak Andre Mariaren Bihotz Garbi-garbiaren eskuetan ipini nahi ditu Errukia eta Ukraina. Martxoaren 25ean egingo du Sagarapena Erroman San Pedro basilikan. Aldi berean, eta Frantziskoren izenean, gauza bera egingo du Ordezkarri batek Portugaleko Fatima Santutegian. Hona segidan sagarapen horren testua.

Andre Maria, Jainkoaren Ama eta gure Ama; larrialdi honetan, zugana jo nahi dugu. Gure Ama zara zu, maite gaituzu eta ezagutzen, gure kezketan ez duzu ezer ezkutukorik. Ama errukiorra, askotan sentitu izan dugu zure samurtasun arduratsua, bakea itzultzen digun zure presentzia, Jesusengana, bakearen Printzeagana, eramaten baikaituzu zuk beti.

Badakizu: bakearen bidea galdu dugu. Joan den mendeko tragedien irakaspenaz ahaztu gara, mundu-gerrateetan eroritako milioien sakrifizioaz ahaztu gara. Alde batera utzi ditugu Nazioen Elkarte bezala hartutako konpromisoak, eta herrien bake-ametsei eta gazteen esperantzari saldukeria egin diegu. Irrikaz gaixotu gara, probetxu nazionalistei lotu gatzazkie, axola-ezak sorgor bihur gaitzan utzi diogu eta egoismoak zurrundu gaitzan. Nahiago izan dugu Jainkoari ez-ezagunarena egin, nahiago bizikidetzat hartu geure faltsukeriak, nahiago oldarkortasuna elikatu, bizitzak suntsitu eta armak metatu, ahazturik hurkoaren eta geure etxe komunaren zaintzaile garela. Hondatu egin dugu gerlaz lurreko baratze hau, zauritu egin dugu bekatuaz anai-arreba izan gaitzen nahi duen geure Aitaren bihotza. Axolagabe bihurtu gara guztiekiko eta ororekiko, geurekiko salbu. Eta lotsaren lotsaz diogu: barkatu, Jauna.

Bekatuaren miserian, geure neke eta ahuldadeetan, gaitzaren eta gerraren makurkeriaren misterioan, zuk, Ama maitea, gogoratzen diguzu Jainkoak ez digula uzten eskutik, baizik eta maitasunez guri begira-begira jarraitzen duela, barkatu eta beste behin guztiok altxarazi nahiz. Berak zaitu guri eman, berak ipini du zure Bihotz garbi-garbian babesleku bat Elizarentzat eta gizadiarentzat.

Zeure jainkozko onberatasuna dela medio, gurekin zaude, eta, are gehiago, historiako ezbeharririk kontrakoanetan samur-samur gidatzen gaituzu. Horregatik dugu zugana jotzen, horregatik dugu jotzen zure bihotzaren atea, guk, zeure seme-alaba maiteok, ez baitzara aspertzen inoiz ere guri bisita egiten eta bihotz-berritzera dei egiten. Gaurko ilunaldi honetan, arren eta arren, zatozkigu laguntzera eta kontsolatzera.

Errepika iezaiozu gutako bakoitzari: «Ez ote nago, bada, ni hemen, zeure Ama nauzun hau?» Ondotxo dakizu zuk nola askatu gure bihotzeko nahaskeriak eta gure garai honetako korapiloak. Zugan dugu geure konfiantza. Zugan dugu ziurtasuna, batez ere gaur egungo probaldi honetan; ez dituzu gutxiesten, Ama maitea, gure erreguak eta lagun zatozkigu. Horixe egin zenuen Galileako Kanako ezteietan, Jesusen lehenengo parte hartzea lasterragotu eta beraren lehen seinalea sartu zenuenean. Festa tristura bihurtu zenean esan zenion: «Ez dute ardorik» (Jn 2,3). Errepika iezaiozu berriro Jainkoari, Ama Maria, gaur bukatua baitugu esperantzaren ardoa, hutsaldia dugu poza, hondatua dugu haurridetasuna. Hondatu egin dugu gizatasuna, andeatu bakea. Edozelako indarkeria eta suntsipena egiteko gai bilakatu gara,

Premia gorrikoa dugu zure amatasun-laguntza. Onar ezazu, Ama Maria, gure erregua. Itsasoko izarra zara zu: ez gaitzazu utzi hondoratzen gerraren ekaitzean. Elkargo berriaren kutsa zara zu: eragin gizartean adiskidetasun-egitasmoak eta bideak. «Zeruko lurra» zara zu: itzularaz ezazu mundura Jainkoaren harmonia. Ito ezazu gorrotoa, mantsotu mendekua, erakutsi iezaguzu barkatzen. Libra gaitzazu gerratik, gorde mundua mehatxu nuklearretik. Arrosarioaren Erregina, piztu ezazu gugan otoitz egin beharra, maitatu beharra.

Giza familiaren Erregina, azaldu herriei haurridetasunaren bidea. Bakearen Erregina, lortu ezazu munduarentzat bakea. Zure intziriak, Ama maitea, hunki dezala gu guztiongan bihotz zekena. Gugatik isuri dituzun malkoek lorarazi dezatela gure gorrotoak lehortu duen ibar ilun hau. Eta armen zarata isiltzen ez den bitartean, zure otoitzak eragin diezagula bakerantz. Zure amatasun-eskuek fereka eta laztandu ditzatela sufritzen ari direnak eta bonben zamapena ihesi dabilzanak. Zure amatasun-besarkadak kontsola ditzala beren etxea eta herria uztera beharturik daudenak. Zure Bihotz atsekabetuak eragin diezagula gupidarantz, eragin diezagula atek irekitzera eta gizadi zauritu eta baztertuaz arduratzera. Jainkoaren Ama Santua, gurutzearen oinean zeundenean, Jesusek, ikaslea zure ondoan ikusirik, esan zizun: «Horra zeure semea» (Jn 19,26), Horrela, gomendio bera egin zizun gutako bakoitzaz. Ondoren, esan zion ikasleari, eta gutako bakoitzari: «Horra zeure Ama» (Jn 19-27).

Ama, geure bizitzan eta geure historian onartu nahi zaitugu orain. Une honetan gizadia, lur jota eta abaildurik, zurekin dago gurutzearen oinean. Zure babesean jarri beharra du, zure bitartez Kristori sagaratu beharra. Ukrainako herriak eta Errusiako herriak, maitasunez beneratzen baitzaituzte, zugana datoz; bitartean zure Bihotza taupadaka ari da gerraren,

gosearen, zuzengabekeriaren eta miseriaren triskantza jasaten ari diren herri bi horiegatik eta herri guztiengatik. Horregatik, Jainkoaren eta gure Ama, guk solemneki gomendatzen eta sagaratzen dizkiogu zure Bihotz garbi-garbiari, bai geure burua, bai Eliza, bai gizadi osoa, eta, era berezi-berezian, Errusia eta Ukraina. Onar ezazu konfiantzaz eta maitasunez egiten dugun egintza hau, egizu eten dezatela gerra, emaiozu munduari bakea.

Zure Bihotzetik irten zen «baietzak» historiako atak ireki zizkion bakearen Printzeari; konfiantza dugu ezen, zure Bihotza dela medio, iritsiko dela bakea. Zuri, beraz, sagaratzen dizkizugu giza familia osoaren etorkizuna, herrien premiak eta ametsak, munduaren larritasunak eta esperantzak. Zure bitartez jainkozko Errukia irits dadila lurrera, eta itzul dadila bakearen taupada gozoa gure egunok markatzera. Baietzaren Andrea, Espiritu Santua jaitsi zitzaiona, erakar iezaguzu berriro Jainkoaren harmonia. «Esperantzaren iturburu bizia» zara zu: ezaba ezazu gure bihotzaren lehortasuna. Jesusen gizatasuna ehundu duzu zuk: egin gaitzazu elkartasunaren eraikitzaile. Gure bideetan ibilia zara zu: gida gaitzazu bake-bidean. AMEN.

2022ko MARTXOREN 22^a.

Justizia eta Bakea.

Frantzisko Aita Santua